


BERRIGARA

33. zenbakia

Jardun elkartea, Bergara

1991, irailak 20




Vicente Huici:
"Euskadin ez da horrelako
ikerketarik egin"


BERGARA: BERIA ERDI ARUAN
Amelia Basterretxea



**Everestetik
bueltan**



**Kilometroak:
Kultur
Hamabostaldia**



**Saskibaloia:
sendotuz doan
kirola**

V
E
C
T
R
A

Besteek desioak besterik topatzen
ez dituztenean zuk
errealitate finkoak
aurkitzen dituzu.



BEREHALAKO
ENTREGA



**TALLERES
OLA, S. L.**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46

BERGARA (Guipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEN: Loramendi, 2

Tfnoa: 79 05 86

DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI
GARAIrako kontzesionaria

Denda-sare Ofizialak

OPEL
Esperientziagatik hobek

UNED-BERGARA IKASTETXE ELKARTUA



Lehenengo matrikula epea: Irailaren 18tik urriaren 18ra

- ✓ Ekaineko azterketak gainditzen dituzten UNEDeko lehenengo ikasleak.
- ✓ Uztaileko deialdian selektibitatea gainditzen duten INBADeko ikasleak.
- ✓ Aurreinskripzioa eskatu eta onarpena jaso duten ikasle berriak.
- ✓ 25 urtez gorakoentzako zuzeneko sarbide ikastaroan (akzesokoan) lehenengoz matrikulatzen diren ikasle berriak.

Bigarren matrikula epea: urriaren 2tik 31ra.

- ✓ Irailean azterketak egiten dituzten UNEDeko lehenengo ikasleak.
- ✓ Irailean selektibitatea aprobaten duten INBADeko ikasleak.

**Aurten, gainera, ZIENTZIA POLITIKOAK ETA SOZIOLOGIA
karrerak emango dira.**

**Bulego orduak: Asteartetik ostiralera, 10.30-12.30 eta
17.30-20.00 Tfnoa: 76 13 42**

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 760397

Laguntzailea: Bergarako
Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkoroberezibar

Erredakzioa:

Eneko Azkarate. Eduardo
Mendibil

Maketazioa:

Eneko Azkarate. Eduardo
Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Ignazio Irigoien. Eburne Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua:

Jose
Angel Mikeo, Estepan Plazaola
eta Juan Martin Elexpuru

Kolaboratzaileak:

J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkoroberezibar, Josune Iñarra, Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga eta Ainhoa Bikufa

Argazki laborategia:

A. Gallastegi, B. Cantero, M. Leturia, K. Retolaza, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J. Tabares, Txomin Retolaza, Kifitu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa:

Txantxangorri
Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 2.500 ale

Loge gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



Mikel Laboak eta Ruper Ordorikak

klasiko bihurtu diren beraien betiko eta azken kantak eskeiniko dizkigute larunbat honetan Herriko Pelotalekuan gaueko 10.30etatik aurrera Kilometroak-en Kultur Hamabostaldiaren barne.

LARUNBATA

21

- Kontzertuak:
 - Arrasaten Gaztetxean *Flitter eta Akulu* 23etan.
 - Elorrioren Gaztetxean *CLGSE* 22etan.
 - Soraluzen Gaztetxean *Lunatics* 22etan

- Kilometroak 91:
 - Futbola: Real - Athletic beteranoak Agorrosinen 16.30etan.

IGANDEA

22

- Futbola:
 - Bergara - Amaikak Bat, denboraldiko lehen partidua. Agorrosinen 17.00etan.

- Kilometroak 91:
 - Bergarako karreretako koe eta motoak ikusgai. Plazan 18.00etan.

ASTEARTEA

24

- Jubilatuetan:
 - Alai Taldea eta Aranzadi Ikastolako Dantzataldea arratsaldeko 19.00etan.

ASTEAZKENA

25


- Kilometroak 91:
 - Eskubaloia: Arrate Xerox - Mepamsa San Antonio Kiroldegian 19.00etan

FARMAZIAK



- 21 Mozos / Gaeuz: Morales (Arrasaten)
- 22 Mozos / Gaeuz: Azkoaga (Arrasaten)
- 23 Camacho / Gaeuz Español (Arrasaten)
- 24 Puy/ Gaeuz: Corcuera (Arrasaten)
- 25 Guallar / Gaeuz: Irizar (Arrasaten)
- 26 Estella/ Gaeuz: Amezua (Arrasaten)
- 27 Mozos/ Gaeuz: Azkoaga (Arrasaten)

ZINEA



Arma Perfecta

- OSTIRALA: 10,30etan.
- LARUNBATA: 5 eta 7.30etan.

Ella siempre dice si

- LARUNBATA: 10.30etan, eta
- IGANDEA: 5, 7.30 eta 10.15etan.
- ASTELEHENA: 7.30etan

OGIA



Mizpildi

KIZKUR



Heapaindegia
Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32



LASA JATETXEA

Bidekurutzeta 36, Tfnoa: 76 10 55 - 76 20 29

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

ONENA TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE



Kilometroetako zinea

S inestezina iruditzen zait Kilometrotako antolatzaileek Kultur Hamabostaldiaren barruan oraindik ere *Ehun metro, Zergatik panpox?* eta *Lauaxeta* bezalako filmeei tartea uztea. Euskal zinea, de akuerdo, baina mila bider ikusteko aukera izan duguna. Ez al dago ezer berriagorik? Ez litzateke aproposagoa izango, adibidez, *El cura de Santa Cruz*eko euskarazko bertsioa lortzea, kontutan izanik gainera, bertan bergarar batek parte hartzen duela? Aretoa hutsik egotea lortu nahi bada hor konpon.

Koldo L.



• ERITETXEAK

Osasun etxea 76 10 82
Larrialdiak 76 12 94
Arrasateko ospitalea 79 53 00

• GURUTZE GORRIA

Bergara 76 55 76
• DYA

Antzuola 76 62 91

• ANBULANTZIAK

Bergaran 76 13 59
Gipuzkoako anbulan. 45 87 44

• SUHILTZAILEAK

Zubillagan 78 28 00

• POLIZIA

Udaltzaingoa 76 14 69
Ertzaintza 76 53 40

• GARRAIOAK

P.E.S.A. 76 16 46
Taxiak 76 19 50

• HIRUGARREN ADINA

Mizpirualde 76 13 68
Aitonak 76 21 40

• BESTELAKO ZERBITZUAK

Udaletxea 76 39 42
Epaitegia 76 14 72
Kiroldedia 76 56 41
Igerilekuak 76 20 51
Kultur Etxea 76 44 46
IMI 76 55 49

Tiiira ba!

Josu Okina



□ Lazkano Madrilen

Diario 16 egunkariak antolaturik, *Madrilgo Velazquez Jauregian* urteko 16 erakustaldirik onenak biltzen dira joan den asteleheneetik. *Jesus Mari Lazkano* bergarra dugu bertan parte hartzen duen margolaririk gazteena 31 urterekin eta bere lanak hilabete batez izango dira ikusgai.

□ Radio Euskadi

Radio Euskadi drogomenpekotasun prebentziorako ikastaro bat emititzen hasiko da urriaren 13tik aurrera.

Bertan parte hartu nahi izan ezker, Udaletxeko Drogomenpekotasunerako Prebentziorako Zerbitzuan edota 76 39 42 telefono zenbakian eman beharko duzue izena.



Auzo alkate berriak

Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak izendatu ditu jadanik auzo alkateak hurrengo lau urtetarako. Lehen, auzoetako bizilagunek pertsona bat proposatzen bazioten alkateari, oraingo honetan alkatea bera izan da, legearen baimenez, alkatetzaren ordezkariak aukeratu dituen. Honako hauek izango dira, beraz, lejis-

latura honetan auzoetako problematika Udaletxera bideratuko dutenak: **Felipe Altuna** Eloregeri auzoan, **Jose Angel Mikeo** Angiozarrèn, **Pedro Urcelay** Uberan, **Manuel Oruesagasti** Elosun, **Martin Elgarresta** Basalgon, **Josu Agirrezabal** Osintxun eta azkenik, **Jose Gabilondo** Murinondo auzoan.

□ Bideluze

Txapelketa oraindik amaitu ez den arren, **Angel Bideluze Euskadiko Motor Txapelketaren** txapeldun berria dugu joan den larunbatean Gueñes-en (Bizkaia) jokaturako proba irabazi ondoren. Angel lider bezela egon da Txapelketa hasieratik eta garaipena lortu du bai 500cm. kubikotako kategorian eta sailkapen orokorrean ere.

□ Ikastaroa

Txuribeltz Kolektiboak 20 orduko clown ikastaro intentsiboa antolatu du bihar, hilak 21, eta etzi, hilak 22rako. Izen emateak 4.000 pezeta balio du eta nahi izanez gero 76 02 55 telefonora deitu beharko duzue Virginiagatik galdetuz.

Etxebizitza berriak

Bergarako Udalak, Toki-Ederren babes ofizialeko 68 etxebizitza eraikitzeke baimena eman dio **Eusko Jaurlaritzaren Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro sailari**. Subentzionatutako etxebizitza hauetako obrak, Udalak, terrenu horien truke, Matxiategiko partzela batzuk eskuratu bezain pronto hasiko lirateke. Bestalde, Udalak babes ofizialeko etxebizitza horietako batzurekin gelditzeke asmoa azaldu du **gizarte zerbitzu** etarako erabiltzeko.



anezka

Udazkenerako oihalak
eta lenzeria

Espolola 8, Tfnoa: 76 59 25

AGIRREBEÑA

Oinetakoak
Erropa denda
Lenzeria

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

□ **Bideoak**

Irailaren 20, 23, 25 eta 27an jaietako eta *San Martzialeko* bideoak ikusi ahal izango dira, jaietako arratsaldeko 7 t'erdietan eta *San Martzialekoa* 8 t'erdietan.

□ **Egin eguna**

Igandean, hilak 22, Al-suasan ospatuko den *Egin* egunera joateko Arrano Elkarteak auto-busak antolatu ditu. Ir-teera goizeko 9etan izango da Frontoitik eta izena Arrano tabernan ere eman dezakezue.



Parke publikoa

Aurreko ez ohizko Plenoan, EAJ, HB, EE eta PSEren aldeko eta EAren kontrako botuekin, *Udalak* Ertzaintzaren Komisaldegaren ondoko *Unceta y Ruiz de la Prada* jardinetan *parke publikoa* egiteko erabakia hartu zuen. Era berean, Ertzaintzaren Komisaldegia beste leku batetan kokatzea ere eztabaidatu zen, baina EAJ, EE eta PSEko zinegotziek atzera bota zuten lekuz aldatzeko proposamena.



Urisabel onena

San Martinetan izandako pintura lehiaketan margolari bergararrak bikain aritu ziren eta lehen saria *Jon Andoni Urisabelek* lortu zuen Santa Marinako koadro batekin. Bestalde, barazki, lora, fruitu eta gazta lehiaketan partehartzea bestetan baino bajuagoa izan zen; barazkietan lehen saria Urrupain baserriko *Maria Egizabalentzat* izan zen fruituetan Antzuolako Bidaurre baserriko *Ascensio Irizarrek* lortu zuen, loreetan Narbaiza baserriko *Victoria Arregik*, lorontzietan *Laura Basaurik* eta gazta lehiaketan berriz, *Rufino Agirre* oñatiarrak.

□ **Margolariak**

San Martinetako Margo Lehiaketan parte hartu zuten koadroak urriaren 31 arte ikus daitezke Kultur Etxean, 6etatik 9etara lanegunetan eta 6etatik 8etara asteburuetan.

□ **Argazkiak**

Udaleku Irekietako argazkien erakusketa antolatu dute *Txin-txerriña* Elkartekoek. Argazkiak arratsaldeko 5 t'erdietatik 7 t'erdietara *Kikaundi* Ludotekan dituzue ikusgai.

TOKI-EDER
Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84



KONDE
PANADEROKUA
Burdiñate 1
BERGARA



IRAKASLE ESKOLA

E s k o r i a t z a
G i p u z k o a

Irakasle Eskola honek zera jakin erazten du:
1991-1992 ikasturterako matrikulazio-epea zabalik dagoela

Espezialitateak:

- ZIENTZIAK
- HAUR-ESKOLA
- EUSKAL FILOLOGIA
- INGELES FILOLOGIA


Informazioa: Irakasle Eskola. Tfnoa: 943 / 79 04 40
Ordutegia: 9.00-13.00

Hamabostaldia

Ia konturatu gabe, isilean, heldu da Kilometroaren txanda. Aste honetarik urriaren 6ra bitartean ekitaldi ugari izango dugu Bergaran euskara eta ikastolen aldeko festa horren inguruan. Antolatzaileek, hamabostaldi kulturalaren barruan, era guztietako ekintza kulturalak prestatu dituzte eta bai musikak, zineak, kirolak, jolasak, etab. luze batek beraien tartetxoak izango dute programaren barruan.

Aste buru honetan ere ekitaldien zerrenda luzea eta interesgarria dugu; *ostiral* arratsaldean adibidez, patinete lehiaketa bat izango da Matxiategin eta gauean, hamar t'erdietan pilota jaialdia izango da herri pilotalekuan.

Larunbatean goizetik izango dugu nora joan; hamaika t'erdietan Gortan ardi txakur lehiaketa ikusgarria jarraitzeko aukera; arratsaldeko 4 t'erdietan, Agorrosinen, Errealak eta Athleticeko



beteranoek iraganean jokatutako partiduen *errebantxa* izango dute, 7retan pailazoak Plazan gaztetxo...eta nagusientzat ere eta, azkenik, gauean Pilotalekuan Mikel Laboa eta Ruper Ordorikaren kanta ezagunez gozatzeko aukera izango dugu.

Igandean, berriz, goizeko 10etan Diana eta 12 t'erdietan Antzuolako Txistularien Alardea Plazan eta arratsaldeko 6retan ere, Plazan, Bergarako karreretako kotxe eta motoak ikusgai izango ditugu. Datorren aste osoan zehar ere ekitaldi ezberdinak egongo dira.



Pelota erakusketa

Kilometroaren inguruan antolatu diren ekintza arrakastatsuenetako bat, dudarik gabe, herri pelotalekuan antolatu den *pelota argazkien erakusketa* izan da. Ikusmin handia sortu du bai *Bixente Jauregiri* esker posible izan den erakusketa honek; bergarar pelotazaleek ezinbesteko zita bat dute frontoian Bergarako pelotaren historia hainbat argazkitan laburtuta ezagutzeko.

Logotipoak

Ikastolak aurtengo *Kilometroaren* ediziorako antolatu zuen *logotipoen* konkurtsora aurkeztutako lan guztiak ikusgai dituzue Ikastolako sarreran urriaren 6 rarte.

Eskubaloia

Asteazkenean, hilak 25, arratsaldeko 7etan Kiroldegian Eibarko Arrate Xerox eta Iruñako Mepamsa San Antonio taldeek eskubaloia partidua jokatuko dute *Kilometroaren* alde.

GANBARA

Berezitasunak:
Pintxoak eta
kafea kremarekin

Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

**T
B
E
R
N
A**

LAZKANO

OINETAKOAK

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03
BERGARA



BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

ELKAR

Harrurlaga 1, Behea
Tfnoa: 76 58 16

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Jendearentzako faxa
Plastifikazioa
Planoen kopiak

Bildu dudan sortatxotik...

Aintzinako oporrak

Antonio Urzelai

Lehengo gizarteak, orain dela hirurogei urtekoak, ez zuen ezagutu oporrik. Bigarren Errepublika gerostik, lortu ziren astebeteko oporrak, ugazabaren bizkarretik ordainduak.

Ordura arte, eskola u-meak eta beste ikasleek, euren irakasleekin, zituzten bakarrik oporrak. Gizarte orokorraren berri ari naiz hemen. Orduan ere, banaka batzuek, majo preskatzen zituzten atze aurreak, Donostiako Kontxan.

Bestalde, udaran ez zen ateratzen jenderik, orain bezela, herritik kanpora. Batetik, ez zegoelako erraztasunik bidaietan ibilteko eta bestetik, nondik eta nola erantzuteko.

Ostera, baziren jai bi, abuztuaren herri-erdian, Andra Mari eta San Roke, jende asko mugitzen zituztenak. Bergaran bagenuen baremo edo mailadi bat gure ahalmen ekonomikoa egoki neuritzen ebana:

Pezeta bat zeukana, joan zitekeen Elgetara; bikoteakin Plaentxiara; zilarrezko durua zuenak, Debaraino; eta, bost du-



*Pezeta bat zeukana,
joan zitekeen Elgetara;
bikoteakin Plaentxiara;
zilarrezko durua
zuenak, Debaraino;
eta, bost durokin,
Donostiara
egun bi pasatzera*

rokin, Donostiara egun bi pasatzera.

Domingok eta bere lagunek, Donostia aukeratu zuten egun bi haiek igarotzeko. Hartu tren goiko geltokian eta Maltzagaraino. Hemen, Bilbotik zetorrena eta Donostiara. Amaran jetxi trenetik, ttapa-ttapa, oinez Boulevard burura, Barandiaran jatetxe aurrera.

Toki honetan Domingori, saldukeria egin zioten bere lagunek. Elkar hartu ondoren, izkutatu egin jakon, bakarrik utzirik. Hasi zen bila, bazter guztietan begiratuaz, baina ez zituen aurkitzen.

Aurrean bertan dauka udal hertzain bat, kasko zuri, txilibito ta guzti. Joaten da berarengana, Domingo, eta galdetzen dio:

- ¡Oye!, ¿Has visto aquí, Txistu, Txanpon y esos?

- ¿Qué dices?

- Si, Txistu y esos, hombre!. ¿Qué, no entiendes?, pues aprende cristiano. Zetako jak ba hau hemen? -esan zuen Domingok.



ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak.
Fatxadak, eskaparatek...

Amilaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34



BERGARA


Tfnoa: 76 25 99

Vicente Huici:

"Euskadin ez da horrelako ikerketarik egin"

Joan den ostiralean Ikerlan Saila izenburupean biltzen diren Bergarari buruzko bederatzi liburuen aurkezpena egin zen Udaletxean. Orain dela bi urte t'erdi Bergarako Udalak UNEDeko Geografia eta Historia Departamenduari emandako enkarguaren emaitza da kaleratu berri den liburu bilduma hau.

Ikerlan honi buruzko xehetasunak ezagutzeko asmoz azterketa guztien koordinazioaz arduratu den Vicente Huicirekin egon gara.



- Udalaren enkargua jaso zenutenean, zein izan zen lehen inpresioa?

- Hasieran harritu egin ginen, instituzio batek, Bergarako Udalak kasu honetan, horrelako proiektu bat ez bait du normalean egiten. Hasi-eran ezinezkoa zela pentsatu genuen. Proiektua oso interesgarria izanik, aurrera eramatea oso zaila zela iruditu zitzaigun. Orain liburuak kaleratu ikustean oraindik harrituta nago...

- Gaiak, metodologia eta autoreak nola aukeratu zenituzten?

- Lehen momentutik proiektua Udalaren eta UNEDeko Geografia eta Historia departamentuaren arteko elkarlan bezala planteatu zen. Guri bide egokiena departamendua bildu eta asmoak azaltzea iruditu zitzaigun. Departamenduko irakasleek, bere espezialitatearen arabera, gai bana aukeratu zuten eta horrela ekin genion i-

kerketari. Bergarako ideologia eta mugimendu politikoak ikertzeko enkargua Jose Mari Garmendia EHUKo irakasleari eman genion. Hau ezik, beste autore guztiak lanean ekin ginenean UNEDeko irakasleak ziren.

- Ikerketak egitean topatuko zenituen ozto-

porik...

-Ez dugu arazo haundiegirik izan informazioa lortzerakoan: artxiiboak, dokumentuak... Horrelako ikerlan batek sor ditzakeen arazo txikiak izan ditugu, baina ez dira garrantzitsuak izan. Orokorrean erraztasunak aurkitu ditugu, bergararren aldetik, ez dugu

**Euskalduna
Taberna**

OSINTXU



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

inolakoo oztoporik izan.

- *Eta hasieran uste ez zenuten zerbaitekin topo egin duzue?*

- Bergarako artea azertu duen taldeak esaterako, uste baino gehiago aurkitu du eta ondasun bikainak gainera. Ez bakarrik arte konbentzionalan, baita artisautzan ere. Bestalde Juantxo Madariagak, horrelako ikerketetan normalean erabiltzen ez diren dokumentazioa erabili du, alegia, testamentuak. Hortik familietako ohiturari, pentsaera erligiosoari eta baita eleizak zekukan indarrari buruzko informazio ugari lortu du. Horrez gain ikerketak eman dituen emaitzak, gutxigorabehera hasierako helburuen esparruan sartzen dira. Bagenekien Bergara oso herri liberala zela, herri ilustratua, eta ikerketak hori frogatu du.

- *Ikerketa honetatik bergararron izakerari buruzko konkluziorik atera daiteke?*

- Liburu guztiak behin baino gehiago irakurri ondoren, Bergarari buruz nekiena baino gehiago dakidanik ez dut uste. Lehen esan dizudan bezala Bergara herri tradizionalista ez dela konfirmatu da. Ingurukoak baino aurrerakoiagoa dela, liberalagoa. Azken berrehun urteetan herri mugitu bat izan da, bai



pentsakera aldetik eta baita ohitura aldetik. Ilustrazioaren eragina, industrializazioa edo eta II Errepublika garaia aztertzen baditugu, garbi geratzen da Bergararen liberal kutsua. Liberala arazo sozial eta politikotan, nahiz eta tradizionalago izan benetako kultura tradizionalan.

*"Bergara herri
tradizionalista
ez dela
konfirmatu da.
Ingurukoak
baino
liberalagoa"*

- *Esan duzun guzti hori gaur egungo Bergarara trasladatu daiteke?*

- Nik uste dut baietz, eta batez ere arrazoi batetatik, hain zuzen ere UNED dagoelako. Horrelako zentru bat Euskal Herri mailan esperientzia bakarra da eta horrek herrian bere eragina du. Behar bada kanpokoak, bergararrak baino gehiago baloratzen dute horrelako ikastetxe bat hemen egotea.

- *Joan den ostiraleko aurkezpenean, bertan zeundeten guztiok proiektua goraiatu zenuten. Hainbestearainokoa da?*

- Udaletxe bateko Kultura Sailak horrelako proiektu bat enkargatzea

ez da sekula ikusi. Anaje Narbaizaren kasua modelikoa eta arraroa izan da, Euskal Herri mailan ez bait da horrelakorik inoiz egin. Politika orokorreko ardatz nagusiak pixkat ahaztuz, lekuko politika egitera ausartu da. Hori ez da egunero ikusten.

- *Ikerlana modelikoa izan omen da, lan zientifiko bikaina. Bergarako irakurlearentzat benetan baliogarria izango da?*


- Ikerlanaren helburu nagusia hori zen, guk nahi genuena zen, bergararrek liburua irakurri eta gero bere ingurua hobe ezagutu zezatela. Uste dugu helburu hori bete dela.

ASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Garibal 9, T fnoa: 79 89 97



Bi urtetako fruituak

1989ko udaberrian, Bergarako Udalak bultzatuta, erakunde horren eta UNEDeko Geografia eta Historia Departamentuaren artean konbenio bat sinatu zen herriko historia, etnografia, geografia eta arteari buruzko monografia bilduma bat, 9 alekoa, egiteko.

Bi urteko epea, nahiko laburra nere ustez, izan dute ikerlariak lanak amaitu eta inprimategira bidaltzeko. Joan den astean argitaratu dira 6 ale eta gainontzeko hirurak laster izango dira kalean.

Aipagarri da, bai gairen tratamenduaren bidez eta bai erabilitako metologiaren bidez Bergarari buruz ematen diguten ikuspegi orokorra.


Juan txo Madariaga
(UNEDeko zuzendaria)



Bederatzirak banan-banan

Hona hemen "ikerlan saila" izenburupean Bergarako Udalak argitaratu dituen bederatzirak liburuak eta berauek egin dituzten autoreen izenak:

- 1.- *Deba Haraneko Historiaurrea* (Xabier Larrañaga).
- 2.- *Bergara: Hiria Erdi Aroan* (Amaia Basteurretxea).
- 3.- *Historia social de Bergara en su época pre-industrial* (Juan txo Madariaga).
- 4.- *Las manifestaciones del espíritu ilustrado en Bergara* (Koldo Larrañaga).
- 5.- *Ideologías y movimientos políticos en Bergara* (Jose María Garmendia).
- 6.- *Historia de la población de Bergara* (Arturo R. Ortega).
- 7.- *Artea Bergaran. Erdi eta moderno aroak* (Jesus Gil eta Maria Jose Aranburu).
- 8.- *Estudio del medio físico del término municipal de Bergara* (Jose Miguel Edeso).
- 9.- *Casa, familia y trabajo en Bergara* (Arturo R. Ortega, Alberto Santana, Maite Ibañez eta Marta Zabala).



Lan aintzindaria

Ikerlan Saila gure herri-historiaren azterketa zabal eta era berean zehatza dugu. Bederatzirak ezberdin helburu bat osatzeko, dakiguna ez dadila pixkanaka galdu. Ikerketa, artxibo lanari edo ahoz jasotako adierazpenei esker eginda, beraz egin diren lanak sortze lanak izan dira, eta ez bilduma soilak, honetan datza hauen balioa.

Bergarako Udalak eta UNEDek 1989an hasi zuten lan aintzindari honen, zeresana izango du gure herrian eta horren eremuetatik kanpo ere, duen garrantziagatik.

Dagoeneko sei liburu argitaratuak eta beste hiru hurrengo otsailerako kalean. Iraileko larunbatetan dauden liburuak salgai ipiniko dira eta kolektoreak izen emateak batuko dira Martin Deunaren Enparantzan 11,30etatik 13,30etara.

Anaje Narbaiza
(Kultura zinegotzi ohia)

MEMESA

IRIMO

SKF

phantom


Arrasate 79 42 22

Artxabaleta

OILAGORRA

Taberna

Barrenkale 21, BERGARA



Merzeria - Lenzeria

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69



**ETXE-
-AUNDI**

Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

YAZKI

UME GAZTE

Neska - mutil

Irizar 3 Ibargarai 8
Tfnoa: 76 16 54 Tfnoa: 76 54 73

Ze inportantzia ematen diozu auzo-alkateari?




Teresa Alberdi
68 urte, etxeoandrea
Inportantzia badute eta auzo txikietan, gehiago gainera. Beharrezkoak dira bai.



Jose Luis Barrutia
32 urte, langilea
Auzo eta Udaletxearen artean lotura egon dadin beharrezkoak dira, gure ahotsa entzunarazteko batez ere.



Nekane Mendikute
24 urte, langilea
Arazoren bat izanez gero beraingana errezago joaten zara, ezinbestekoak dira.



Martzel Alberdi
67 urte, jubilatua
Nere ustez beharrezkoak dira, lan interesgarria egiten dutelako auzoaren alde.



VID-ART

Bidriera artistikoak

**BIDRIERAK - MURALAK - ISPILUAK
KRISTAL BISELATUZKO ATEAK - etab.**

Belanbide z/g. BERGARA


AZOKA
PLAZA

Autobus
geltokia

Frontoirako bidea

Ibargarai

VID - ART
NINIKA LAGUN
ARO




Erakusketa:
Astelehenetik Ostiralera, 11 - 3 eta 17 - 20
Larunbatetan 11 - 3

**BIDRIERA ARTISTIKOEN
1.ERAKUSKETA IRAUNKORRA**

FABRIKAKO PREZIOAK DITUGU

**Azal eiguzu zure ideia
VID-ARTEk egingo dizu.**

Enkarguak eta abisuak:
Tfnoa: 76 23 30 - 76 41 54
Fax: 76 41 54 (Bulego orduetan)
9 - 14 eta 16 - 20



Euskara eta eskola

Ikasturte berriak ekarri digu nobedaderik asko: Nafarroako gorabeherak hezkuntz transferentziak eskuratu berri dutela, Iparraldeko euskarazko irakaskuntzaren gehitze motel baina etengabekoa, Elkarte Autonomoko hezkuntz autoritateen asmoak...

Arazo zerrendak ere, luze eta ugari. Tartean, Hezkuntza sailak ikastolekin konpondu gabekoa: ikastolei ertainetan nahi beste jarduteko ukazioa. Uda hasieran Aranzadi ikastolatik eta Batxiler Institutotik agertutako eritziak ditut gogoan. Sailak dioenez, mapa eskolarra burutu arte itxoin beharra dago. "Espertuak" behar omen ditugu gai honetan ere. Baina, eskola-ikastoletan presa gehiago dago itxura denez. Eskoluen murrizpenak alarma jo du eta eskaintza-kompetentzia latza zabaltzen ari da, eskolatzea labora super on eta merkeak egitea balitz bezala.

Tristeza litzateke ikastetxeak halako publizitate komertzialean elkarren kontra jarduten ikustea, Madril eta hain urruti joan gabeko eskola dirutsu eta "goi mailakoetan" gertatzen den bezala: "pitagorinak erruz, modu onean eta geroko lanpostu seguruarekin". Ez litzateke hobe, konpetentzia horri elkarlana kontrajartzea? Zaila omen da oso; baina, badirudi zuzenena eta logikoena ikastetxeen arteko eskaintza-banaketa dela, udalen lankidetzaz indarrak bilduz, eskola-pulazioaren onerako. Logikak ordea, askotan errealtatearekin antz apurrik ez. Tristeza litzateke horrenbesteraingo amerikartzea.

Iñaki Mozos



Kilometroak eta euskal musika

Kilometroak 91aren inguruan hurrengo asteotan eskeintza ugari izango dugu bergararrok. Horrela, ekitaldi ezberdinetan parte hartzeko aukera izango dugu denok.

Ekitaldi hauetariko bat bihar izango da herri pilotalekuan; hain zuzen Mikel Laboa eta Ruper Ordorikak eskeiniko duten kontzertua. Ez naiz hasiko lerro hauetan bien garrantzia goraiatzeko, baina bihar pilotalekuan agertzeko arrazoi batzuk eman nahi ditut.

Lehenik eta behin, izenak kontutan hartu gabe, euskararen aldeko ekitaldi bat da; eta beste alde batetik Mikel eta Ruperren kalitatea aipatzekoa da.

Mikel Laboak hamarkadak daramatza bere abestiak Euskal Herri osotik zehar zabaltzen; eta betiko euskal musikatik abiatuz estilo propioa sortu du. Ruper Ordorika aldiz, gazteagoa da, baina dagoeneko lau diska kaleratu ditu, askotan bere musika Atxaga, Sarrionandia edo Iturrালের testuei egokitu duelarik.

Beraz, bi arrazoi nagusi daude kontzertura joateko: euskara eta musikagileen kalitatea eta profesionaltasuna. Mikel eta Ruper. Ruper eta Mikel. Bihar Bergaran.

Mikel Lizarralde

ERREKI

**Erretegia
Berezitasunak:**

Bixigua eta txuletak

Fraskozurl Enparantza

Tfnoa: 76 38 51

ayastury

Barrenkale 30
Tfnoa: 76 11 31

Jantzidenda

HALTZARI

**Fagor altzarien
banatzailea.**

Sukalderako altzariak

BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57 BERGARA

LONBIDE

OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA

Zeuk galde



33. Emakume ezkongabea naiz, seme bat dut eta nere aita eta amarekin bizi naiz baina nere aita Jubilatua dago eta bere diru-sarrerak oso txikiak dira. Badago lagutarik kasu hauetarako?

Bai badaude baina laguntza hauek haurra bere ardurapean duten familientzat dira eta, horregaitik, laguntza erabakitze-rakoan familiaren diru-sarrera guztiak hartzen dira kontutan eta baita familiaren egoera orokorra ere.

Edozein modutan, honi buruzko informazio zehatzagoa lortu nahi naduzu Emakumeen Laguntzarako Zerbitzura jo dezakezu, Beragarako anbulategira, astelehen, astearte eta asteazkenetan, 10etatik ordubate-tara.

□ Everesta begibistan

Amaia Aranzabal Everest 91 espedizioan doanaren ahizpa, *Arantxa, Aitor* anaia eta *Mirari Lamariano* laguna, orain bi aste itzuli ziren *Nepaletik*. Hilabete bat egin dute bertan eta, nola ez, hango mendiak ezagutzeko aukera paregabea ahal izan duten neurrian aprobetxatu dute. *Kanpo* basean 12 egun igaro eta *Khalapatar* mendatea (5.600m.) igotzea ere lortu dute. Bestalde, espedizioan giro ezin hobea zegoela esan zigten; azken albisteek diotenez, 7.300 metrora aurkitzen dira. *Everesta* gero eta hurbilago...



□ Kutxaren Barrenkaleko lokala

Beragarako Udala, Kutxak Barrenkalen duen lokalaren alokatzeko jentzioak egiten ari da, *Udaletxean* egin beharko diren egokitze obrak hasten direnean bertara pasatzeko asmoz. Era berean, baldintzak interesgarriak balira, Udalak lokal hori erosteko ahaleginak egingo lituzke. Egokitze obra horiek 200 milioi inguruko aurrekontua izango dute *Iñaki Aspiazu* arkitektuaren proiektuaren arabera, Diputazioak 28 milioko laguntza eskeiniko duelarik.



Mugica

Cozotegia

Artekale 3, Tfnoa 76 51 65

FERNANDEZ



Oihal puskak
Oihalak

San Antonio 3
Tfnoa: 76 22 93

Ibargarai 2
Tfnoa: 76 53 22




□ **Altarera**

Joan den igandean *Laura Etxaniz Jardun Elkarteko* kidea eta *Jose Gallastegi* ezkondu zitzaizkigun Angiozarren. Honelako kasuetan gertatu ohi den bezala, biek baietza eman elkarri, bapo bazkaldu familia eta lagunekin batera... eta asteazkenean Indiaruntz irten ziren ezkontza bidaia egitera. Zorionak eta ondo ibili!



Zertan dihardute ba?

JUAN LUIS BIKUÑA



Astelehenetik 45 urteko bergarar kazetari honek Euskal Telebistaren ordubietako Teleberri informatiboa aurkezten du. Juan Luis ETBren sorreratik ari da Durangon lanean, eta informatiboaetako buru dugu.

M.CARMEN GALLASTEGI



Azken 7 hilabetetan Eusko Jaurlaritzako Ekonomia sailburua izan den 45 urteko bergarar honek bere postua utzi behar izan du EAko beste bi sailburuekin batera, astelehenean gertatutako Gobernuaren apurketaren ondoren.

Tfnoa: 76 00 50 **ARGAZKIAK ORDUBETEAN** Tfnoa: 76 00 50

ETXAGI

Afariak - Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Gosariak - Bazkariak
Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

Hau dok barreguria !!

Eguneroko moduan badator abadia bere sotana haundixakin brebiarixua errezauaz, prixa barik, eta ikusten dau peskarixa ibai ertzian kañiai helduta, serixo, anborrañen batek noiz pikauko.

-Ze, badihardugu? -abadiak.

- Bai, badihardugu ba.

- Eta zer, asko harra-pau dogu ero?

- Ez ba, ez ba. -gizonak ibaixai begirik kentzeke.

- Zenbat? -dana jakin nahi abadiak.

- Jangoikuak beste.

- Bat orduan...

- Ez, bapez.

Lehen normala zan etxietan kabliekin eta tranpak eittia argindar gutxiago pagatzeko. Iluntze baten gizon bat aillegau zan Plazentzia-kosaserri batera eta ate



joka hasi:

- Nor da? -barrukal-detik.

- Iberdueroko inspe-toria naiz eta zabalduizu.

- Ba pixkatian itxoizu, tranpia kendu bihot eta.

- Zer, tranpia kendu bihozula eta itxoitteko? Ez horraittio!

- Inddarka batian atioi zabaldu eban eta zabal-tziaz bat jausi zan tranpa-zulotik behera, sats pilla-ra.

J.M. Elexpuru

Antzinako kontuak

Trikuharriei buruzko sinismenak (2)

Irukurtzeta baino a-pur bat beherago dagoen trikuharriaren ondoan erlijio kutsuko erromeria bat ospatzen zen aspaldi maiatzaren lehen igandean. Osintxuko Lezarrisoroko gizonak gurutze bat eramane ohi zuen bertara.

Esaten dute Irukurtzetako trikuharriaren azpian urrezko kanpai bat dagoela gordeta. Behin gizon batzuk joan zirela ateratzera, baina buruan adarrak eta ahuntzaren hankak zituen gizon itxurako monstruo bat ateratzen zuten. Behin egin behar omen zuten.

Plazentzian bazen beste esaera bat ere: Karakate eta Irukurtzeta bitartean dauden hamaika trikuharrietan urrezko ontzi bana dagoela eta denborarekin ardiek beren hankekin bistaratuko dituztela. Baita Oilarraitzko monolitoaren azpian urrezko palanka bat dagoela idinarru baten bilduta.

Baita esaten da 1907an baserritar batek Nasiko Guenako trikuharria aztertuta eta urre ugari ateratu zuela eta handik laster Ameriketara joan zela.

Baita esaten da Atxolin-go haitz baten dagoela hanka formako hutsunea Amabirjinak egindako hanka-marka dela.

Inguru honetan bada zenbait jentilarri (menhir). Esaera zaharrak dienez jentilek jaurti zituzten harrika orain dauden lekuetara. (Jentilak pertsonai mitikoak dira. Izugarrizko indarra omen zuten. Ez zuten kristautasunera bihurtu izan nahi eta baztertuak bizi omen ziren)

Soraluzen esaten da Lezioko Haitza Artzabalgo jentilak bere abailaz jaurti zuela Atxolindik. Beste hainbeste esaten da Ozuma errekaok ere. Ollarraitzko jentilarrira ere Untzeta menditik jaurtia izan omen zen.

J.M. Elexpuru

Nahikari

Txema Muñoz

argazki
erakusketa

"Ortopedia
Subjetiboa"

Iraila osoan zehar

Mahasterreka 20, Tfnoa: 765771

IZOZKIAK

IZARRHOTZ

IZOZKIAK

Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22

M.
OSINAGA

Etxeko
erreformak

Sukaldeko
altzariak

Espaloia z/g
Tfnoa: 76 29 85 / 76 00 57

Sendotuz doan kirola



Horretarako, junior taldeko jokalariek senior taldean jokatu ahal izango dute eta aldrebes, jokalaria gehienak 21 urtetik beherakoak baitira; "ez ez dugu selekziñorik egin behar izan eta hori alde batetik abantaila da".

"Gure asmoa arazorik ez pasatzea eta sailkapenaren erdian amaitzea litzateke"

Gaur egun jendea ez da eskubaloia ikustera joaten lehen gertatzen zen bezala, "gure helburu bakarra da eskubaloiak gora egin dezala berriro gazteen artean". Hala ere, nahiz eta Irungo Elgorriaga Europako talde onenetarikoa izan, honek ez du fitxen hazkunderik ekarri, "Irun, Eibar eta Donostialdea izan ditugu eskubaloia zentru nagusiak eta herri horiek askoz ere aurreratua doaz teknika aldetik; guk, bestalde, teknika falta hori indarrarekin ordezkatzeko dugu". Ia milioi bateko aurrekontuarekin, Bergara K.E. ko eskubaloia sailak aurtenera indarrez ekin behar dio oraindik gorago egiteko.

Gipuzkoa mailan eskubaloia krisian egon arren (ikastetxeetan gero ta gutxiago irakasten da, jendeak kantxetatik aldegin du...), gure herrian une goxoak bizi ditu eta azken urteetan gora egin du. Josetxo Muniategi eskubaloia arduradunak dioen bezala: "gaur egun mutilak bere kontura eskubaloian jokatzen ikus daitezke; hori orain dela urte batzuetan sinestezina zen eta zentzu horretan izugarria aurreratutako dugu Bergaran".

Gure probintzian, guztira, 1800 bat federatu dira eta gure herrian 100 bat gazte jokatuko dute aurtengo denboraldian eskubaloian 6 taldeetan banaturik; 2 emakumezkoenak kadete eta jubenetan (biak Iñaki Canteroren ardurapean), eta beste 4 gizonzkoenak; kadeteak Xabier Lijok entrenatuko ditu, jubenetan Juan Luis Ruizek eta juniorrak eta seniorrak Josetxo Muniategi Oskar Lizarralderekin batera.

Transizioa

Euskadi mailan jokatuko duen talde juniorra izan ezik, gainontzeko jokatuko dute inguruko taldeen aurka. Gainera talde seniorrak iaz 2. mailatik 1go mailara igotzea lortu zuen eta beraz hastear dagoen denboraldi hau transizio denboralditzat jotzen du Josetxok, "gure asmoa arazorik ez pasatzea eta sailkapenaren erdian amaitzea litzateke".

ARRASATEARRA

Gure berezitasuna bazkariak.
Eguneko menua daukagu.

Taberna

Zubiaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 BERGARA

Gizon Emakume



Irala 2 / Barrenkale 35



Pazkuetako estampa

Oraingoan ere Pazkuetako estampa polit batekin gatoz. Atzean azokako edificazioaren behean, alde batetik, korreotako bulego zaharrak 1983 an lekuz aldatu zirenak. Bestetik, Vergara supermerkatua eta Udaletxe ondoan, kantalean, periodikoen kioskoa, orain plazaren beste aldean dagoena.

Nahaspila horretan ez da erraza guztien izenak zuzen ematea eta baliteke baten bat aipatu gabe uztea. Hala ere, **hona hemen ezkerretik eskumara eta aurretik atzera erretratuan dexente samar ikusten diren dantzariak:**

Miguel Angel Retegi, Elisabeth Arrieta, Mirentxu Lazkano, Ramon Mujika, Kontxi Ilarduia, Mariasun Eguren, Miguel Mari Lete, Margarita Muñoz, Maria Jesus Moñux, Arantxa Gallastegi, Visitacion Maruri, Luis Mari Belastegi, Marisabel Arregi, Cristina Gabilondo, Esther Ugalde, Jose Miguel Lizarralde, Jesus Maria Garriz eta Dionisio Zubizarreta.

*Estepan Plazaola
Argazkia: Bixente Jauregi*

**Taberna
Zaharra**

Jatetxea

ANGIOZAR Tfnoa: 76 21 21



KORTA-ZAR

Txokolategia

**Pintxo eta ogibitartekoen
espezialitatea**

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 62



ETXEBIZITZA

- Pisua salgai Koldo Elizalde 20an. Deitu gaueko 8etatik aurrera 764252
- Pisua salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823.
- Pisu txiki edo buardilla bat hartuko nuke alokagailuan. 763270
- Pisua salgai; garaje eta guzti. Tfnoa: 763911.
- Baserri bat hartuko genuke alokairuan. Tfnoa: 763431.
- Pisu edo buhardilla hartuko genuke alokairuan. 764735.
- Apartamentua salgai Elgetan. Deitu: 768157 gauez. Prezioa: 5.000.000

LANA

- Uberan neska euskaldun bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu: 764149
- Umeak zaintzeko neska euskaldun bat behar da. Deitu: 762981. Elisabet.
- Neska euskaldun bat behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu: 765190. Gaueko 8etatik aurrera.
- Umeak zaintzeko neska euskalduna behar da. Deitu: 762740/764552
- Neska euskaldun bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 760257. 7-1eta 4.30-8.

- Arratsaldez lana egingo nuke etxeko lanak egiten edo umeak zaintzen. Deitu: 765482
- Produzio saileko injeniero-tekniko batek lan egingo luke. Tfnoa: 761913.
- Neska euskaldun bat behar dut haurrak zaintzeko. Deitu: 761852 edo 765261.

- da garestia. 763269.
- *Reflecta Diamator AF* diapositiba proiektorea salgai. 762230 gaueko 9etatik aurrera.
- Hiru urte dituen Mobyette bat salgai. Prezio ona. 763276.
- 7 pertsonarentzako algodoizko kanping bat salgai. Prezioa 6.000 pzata. 761634 Arantzagatik galdetu.
- Vespa 200a salgai, egoera onean. Prezioa 180.000 pzata. Deitu 761639 tfno.ra.
- Karabana berri-berria salgai. Deitu: 761388.
- Parapente STROM-25 berri-berria salgai. Deitu: 763738.
- Skate-ko patinete berri-berria salgai. Tabla Hard-Times, ejeak Gold-Wine eta erruberak Mini-Rat. Deitu: 762682.

SALDU-EROSI

- Yamaha 250 SR oso egoera onean salgai. Deitu: 862071era.
- Amstrad ordenadorea salgai, kolorezko monitorea, 3 pulgadako disketera, 30 joku eta oso merke. Tfnoa: 7625 12
- Karrerako bizikleta polita eta arina salgai. Ez

Hildakoak

Anastasia Del Teso
73urte, irailak 13an

Jaiotakoak

Ainhoa Martinez Herrera
irailaren 5ean
Ruben Peña Fernandez
irailaren 12an

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

MAKAILO

Makillau ETXEA
kazuelak
gertatzen ditugu

Ibargarai 15

Kilometroak 91 urriak 6, BERGARA



*Igo tipi-tapa
euskararen aldapa*